

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

65. zenbakia aurkeztera natorkizu irakurle. Bost artikuluz osaturik dator. *Uztaron* ohi denez, beste behin ere, giza eta gizarte-arlo desberdinetatik datozen lanak atzemango dituzu. Oraingoan, hala ere, lanen jatorrizko sailei dagokienez, berritasunik egon badago

“Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian” artikuluan, kultura espekulati-boa eta baliabide naturalak, kontsumismoaren gainditzea, eta ekonomiaren erabilera zientzia eta teknologian aztertzen dira gizartearentzako alternatiba autogestionarioa zehazteko asmoz. Izan ere, baliabide ekonomikoak lortzeko orduan kapitalismoak erabili duen modurik eraginkorrena espekulazioa izan baita. Espekulazio horretatik inor eta ezer ez da libratzen kapitalismoan. Horri kontrajarririk sozialismoaren ikuspegia baloratzen da, esanez, sistema sozialistetan espekulazioaren alde bat baizik ez dela kontrolatzen. Aurrera begira, eta egoera ilun horren irtenbidetzat, indigenen kontrapuntua aurkezten zaigu. Bereziki, baliabide naturalei loturiko haien portaera ontzat ematen da: lurretik zerbait hartzekotan ondorengoa ere zaintzen baitute behin betiko ez agortzeko. Zailtasunak hasten dira hau guztia gaurko euskal gizarteari egokitu nahi zaionean. Daukagun kontsumo-gizartea eta haren ondorioak uzteko gai al gara? Pentsamendu autonomo bat garatuz eta jarduera soziopolitikoan sistema komunitarioaren defentsa eginaz ihardesten zaigu. Hala ere, ez da garapen zientifiko teknologikoa ahazten. Hemen dago koska. Baina, hori onartzeak nola elkartuko lituzke indigenismoa eta modernitatea? Planteatzen den eztabaida gihartsua da, noski.

“Gogoetak irrati-programazioaren kontzeptuaren inguruan. Programaziotik mezura” artikulua konstatazio batekin abiatzen da: Internet heldu eta gero, goitik behera aldatu dela irrati-programazioaren kontzeptua, alegia. Irrati-programazioak harmonia eta koherentzia bilatzen ditu. Eta hori, entzuleria gero eta oparagoa lortzeko, gordetzeko eta egokitzeko asmoz. Hortaz, entzule gehiago izatea bilatzen da zeren horrek, nola ez, diru-iturri gehiago baitakartza publizitatearen bidetik. Hau onaturik ere, berehala irrati-programazioen erduei buruzko eztabaidara igarotzen gara: edukien araberakoa, egituren araberakoa, denboraldi edo urtaroaren araberakoa, asteroko kadentzien araberakoa, kateak bere irrati-etxeekin duen estrategia eta erlazioaren araberakoa, hartzailearen araberakoa, zein izan behar da? Beharbada, aipatu eredu guztiekin egindako multieredu bat litzateke ideala. Dena dela, irratia testuinguru berri batean sartuta daudela ez dago dudarik: Internet bidezko irratia jokaleku hertziarrak ez dituen hainbat aspektutan oinarritzen baita. Baina, hori baino garrantzi handiagokoa da jakitea Interneten bidezko irratian hiru elkarrekintza gurutzatzen direla: parte-hartzea, transakzioa eta erlazioa, alegia. Hemen dago entzulea pasibo izatetik aktibo izatera pasarazten dugunean sortzen diren eskakizunen desafioa. Eta horri nola erantzun egoki? Artikulugileak azpitoluarekin ongi aditzera eman duenez, mezuaren eraginean aurkitzen gara beste behin irrati klasikoenean bezalatsu, salbuespenak salbuespen, noski.

“Septentrioz Septentrio Aurelia Arkotxaren bi libururen irakurketa bat: *Septentrio*, Alberdania, Irun, 2001 eta *Septentrio*, L’Atelier du Héron, «Pérégrins», Bruxelles, 2006” artikuluan, literatura-arloan ari den Iparraldeko gazte jakintsu batek erakusten digu nola gurutzatzen diren lan eruditua eta lan kreatiboa Aurelia Arkotxa idazle-irakaslearen obran. Aspaldian literatura-sailean artikulurik argitara gabe geundenez pozik hartu dugu ekarpen hau *Uztarotik*. Gogoratzen zaigunez, iturrian, Mallarmé-ren influentzia dago. Eta azken horrentzat gizakiak duen “ideiak”, hots giza Espiritutik kanpo errealtaterik ez duten birtualitateak asmatzeko ahala, gai pentsakorra den gizakiarengandik sortu kontzepzio mental soilaren emaitza liteke. Edozein pentsaerak, horrela, menturazko joko batean parte hartzen du. Itsas bidaia eta Septentrio bilaketa joko gisa aurkezten dira A. Arkotxaren liburuetan ere. Puntu honetara ailegatzean, Mallarmé-k bezala, A. Arkotxak oinarritzko galdera bat pausatzen du “behar ote denetz idatzi”. Bi jokabide dira orduan agerian gelditzen: etengabeko errepikapena eta isiltasuna. Erantzuna argi dago A. Arkotxaren baitan: lehenik errepikapena hautatzen du, zeren lehen *Septentrioren* testu bakoitza berridazketa andana baten azken bertsio gisa agertzen baita. Baina nola interpretatu behar dira bi *Septentrio* horiek? Ez dira mintzaira (euskara) eta kultura baten defentsa soil bat. Zeren bigarren *Septentrio* frantsesez emana baita. Orduan, arrazoiaren bila jarrita literaturaren eta joko literarioen “eskubide” unibertsalaren eta translinguistikoaren defentsa bezala ulertu beharra ageri da. Proposamen gogoetagarriak aurkezten dizkigu artikulugileak. Baina literatura joko hutsera eraman behar ote da?

“Ikuspuntu berriak umeen zenbatze-ekintzari buruz: Piaget-engandik harago” artikulua Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika saileko bi irakaslek idatzi dute. Pozgarria da egitate hori. Izan ere, hainbat psikologo sozialek erabili izan baitute Piaget-en jatorri zientifikoa dela medio ikerketa mota hau. Eztabaida zehaztean datza zenbat urterekin ulertzen duten zenbaki-kontzeptua haurrek. Piaget-ek ezarri zuen lehen irizpideak zioen operazio-aurreko etaparen bukaera arte (sei urte inguru) ez zutela ulertzen. Piaget-ek zenbakien zentzu kardinal eta ordinalen ezin ulertua azpimarratu zuen. Laurogeiko hamarkadan zenbaketarako trebetasunaren aurretiko printzipioak zeudela erantzun zioten. Azken hamarkadotan, 2 eta 4 urte bitarteko haurrek dauzkaten gaitasun aurrematematikoaren inguruko ikerkuntzek datu esperimental berriak ekarri dizkigute. Urtebete izan aurretik ere, gizakiok estimuluen erregulartasun kuantitatiboari erreparatzeko ahalmena dugula erakutsi digute. Urteotan estimuluen ezaugarri zenbakizkoak prozesatzeko haurtxoek duten sistema bakarra ala bikoitza den eztabaidatzen ari da. Bestalde, neurozientziaren aldetik pentsamendu matematiko eta zenbakien ulerkuntzaren oinarri fisiologikoen gaineko datu esanguratsuak plazatzen ari dira. Ingurumariko erregulartasun zenbakikoez jabetzeko ahalmena haurrek ere badutela erakutsi digute. Areago, zenbait animaliak ere baduela karakteristika kuantitatiboaz jabetzeko ahalmena. Gurasoentzat, irakasleentzat eta, oro har, haurren heziketaz arduratzen diren guztientzat garrantzi handieneko ikasgaiak ematen dira.

“Logika sozialak eta norberaren ekimena: pertsona-izenak hautatzea Euskal Herrian” artikulua, gurasoei izenak hautatzean eragiten dieten logika sozialei buruzko lan bikaina da. Ez dago dudarik jendarteko egitura “egituratuak” bere egiten dituela jendeak, baina, artikulugileak, egitura “egituratzaileetara” ailegatu

nahi du, Bourdieu-ri jarraiki. Hizkuntzalaritzak eta semiotikak arras jorraturiko gaia da izen propioen esanahia, denotazioa eta konnotazioa barne. Baina, badira ere izenek erreferentziarik ba ote duten galdetu dutenak. Izendatzea, beraz, errealitatea sailkatzea, antolatzea, eratzea litzateke. Bourdieu-ren ustez, ordea, pertsona-izenek ez dute erreferentziarik. Erreferentzia paradigmatic irtetea proposatzen zaigu. Esanahia ez baitago izenean bertan, izena jendartean erabiltzeko moduan baizik. Esku artean dugun ikerketan, bada, izendatze-praktikak aztertzen dira ondare sinbolikoen merkatuaren ikuspegitik. Ondare sinbolikoa, berriz, eremu bateko balioa arautzen duen logikak balioztatzen du. Horrela ondare sinbolikoa sortu duen kulturaren ulertze-kodea behar dugu. Gainera habitusak gidatzen ditu jendearen gustua eta nahia. Eta habitusa lortzea kapitala pilatzea bezala denez, izenetan ere ez da berdin partekatzen kapitala. Pertsona-izen batzuk erabiltzea eta beste batzuk zokoratzea kontsumo-eremu baten logikaren arabera azaldu behar da. Euskal Herrian pertsona-izenak historia eta testuingurua kontuan hartuta aztertu behar dira. Logika sozialetatik norberaren ekimenera pasatzen garenean, hiru logika nabarmentzen dira: generoarena, belaunaldiarena eta gentilizioarena. Kultur anitzeko izengintza da gaurkoa. Euskal izenetan bat egingo lukete euskal kultura eta identitatearekiko atxikimenduak eta norberaren singularitasuna indartzeko joerak. Izenen mugaketan egondako kontrol-borroka ere zehazten da. Hala ere, argi dago izena hautatzearen askatasunari jarritako mugak behin eta berriro gainditu izan dituela jendeak. Gaia sakondu nahi duenarentzat artikulu gomendagarria da benetan.

